

## Eskulangintza Sustatzeko Plana

Urtea: 2021 | Ekonomia Sustapena

### Deskribapena

Eskulangintza sektorea sustatzeko programa, lehiakortasuna hobetzeko, eta merkaturatzea eta gizartean duen balioa indartzeko.

### Enonuradunak

Entitate onuradunak izango dira eskulangintzan aritzen enpresak izango dira, batetik, banako enpresaburuak eta enpresa sozietarioak, eta, bestetik, Gipuzkoako eskulangintza sektorearen ordezkariak erakundeak.

### Dirulaguntzen xedeko jarduerak

#### - Eskulangintzako enpresak

- Makineriaren, tresnen, altzarien eta informazioa prozesatzeko ekipoen inbertsioak, baldin eta jarduerarekin zuzeneko lotura badute.
- Web-orriak sortzea eta eguneratzea..
- Gizarte Segurantzaren kotizazioa ordaintzeko kuotak.
- Negozio lokalaren aloikarua.
- Kanpo aholkularitza, tailerraren kudeaketa hobetzen laguntzeko
- Azoketan parte hartzea.

#### - Eskulangintzako elkarteak

- Eskulangintza sektoreko elkarte edota erakundeek azoka edota eskulangintza lehiaketak antolatzea.

### Diruz lagundu daitezkeen kostuak eta dirulaguntzen zenbatekoak

Proiektu bakoitzerako gehieneko diru laguntzaren zenbatekoak:

#### - Eskulangintzako enpresak

- Makineriaren, tresnen, altzarien eta informazioa prozesatzeko ekipoen inbertsioak, baldin eta jarduerarekin zuzeneko lotura badute: diruz lagun daitezkeen kostuaren % 75raino; eskulangintzako lantegi bakoitzeko gehienez ere 1.500 euro eman ahal izango dira.
- Web-orriak sortzea eta eguneratzea: diruz lagun daitezkeen kostuaren % 90raino; eskulangintzako lantegi bakoitzeko gehienez ere 1.000 euro eman ahal izango dira.
- Gizarte Segurantzaren kotizazioa ordaintzeko kuotak: diruz lagun daitezkeen kostuaren % 100raino; eskulangintzako lantegi bakoitzeko gehienez ere 1.500 euro eman ahal izango dira.

- Negozio lokalaren errentamendua: diruz lagun daitekeen kostuaren % 90raino; eskulangintzako lantegi bakoitzeko gehienez ere 800 euro eman ahal izango dira.
- Kanpo aholkularitza, tailerraren kudeaketa hobetzen laguntzeko: diruz lagun daitekeen kostuaren % 90raino; eskulangintzako lantegi bakoitzeko gehienez ere 1.000 euro eman ahal izango dira.
- Azoketan parte hartzeko:
  - Gipuzkoatik kanpoko azoketara joateko bada, diruz lagundu daitekeen kostuaren %60 adinakoa izango da dirulaguntza, eta, gehienez ere, 2.000 euro azokako. Diruz lagundu daitekeen gastutzat joko da zoruaren eta erakusmahaiaren alokairu faktura, azokaren antolatzaileak egindakoa.
  - Gipuzkoako azoken kasuan, azokan izena emateko kostuaren %80rainokoa finantzatuko da, gehienez ere, 1.700 euro azokako.

**Eskulangintza lantegi bakoitzari ezingo zaio guztira 5.500 euro baino gehiago eman.**

#### **- Eskulangintzako elkarteak**

- Azoka edota eskulangintza lehiaketak antolatzeagatik: % 65eraino finantzatuko da, gehienez ere 15.000 euro azoka bakoitzeko.

### **Dirulaguntza emateko prozedura**

Lehiaketa bidezkoa, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

### **Dirulaguntzen bateragarritasuna edo bateraezintasuna**

4.1.c eta 4.1.g oinarrietan aurreikusitako jarduerak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu eta helburu bererako emandako beste edozein motatako dirulaguntza edo laguntzarekin.

Oinarri hauek arautzen duten dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, eta ezin da izan ez bakarka, ez beste dirulaguntza batzuekin batera, ez beste herri administrazio batzuen laguntzekin batera.

4.1.a, 4.1.b, 4.1.d, 4.1.e eta 4.1 f oinarrietan aurreikusitako jarduerak bateraezinak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu eta helburu bererako emandako beste edozein motatako diru-laguntza edo laguntzarekin

### **Betetzeko epeak**

- Eskaerak aurkezteko epea: **2021eko maiatzaren 17an amaituko da.**
- Jarduerak hasteko epea: **2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.**
- Proiektuen exekuzio data: **2021ko otsailaren 25erako amaituko da.**

## **Araudi aplikagarria**

[Oinarri arautzaile orokorrak aldaketa eta 2021eko deialdia \(GAO 71 zk. 2021/04/20\)](#)

[Oinarri arautzaile orokorrak \(GAO 114 zk. 2020-06-18\)](#)

## **Eskaera egiteko urratsak**

[Dirulaguntzak kudeatzeko aplikatiboa](#)

## **Informazioa gehiago**

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/artisautza>

## **Edozein zalantza izanez gero, kontsultatu**

### **EKONOMIA SUSTAPENeko zerbitzua**

Telefonoak:

- Kudeaketa teknikoa: 943 11 22 87
- Kudeaketa Administratiboa: 943 11 22 18

[sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus](mailto:sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus)

## **Eskulangintza Sustatzeko Plana**